



Bentatxu

etxebizitza

Aldacrak:

Ahokoia: Bentátxu



43° 10' 58"

2° 32' 55"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

*Santroka*z inguruan koka-tzen den baserri honen gaineko lehen aipuak XIX. mendekoak badira ere, guk XX. mendeko dokumentazioan aurkitu ditugu erreferentzia gehienak: *Ventachu de Santrocas* (1905, BUA, 40. or.), *Ventachu* (1945, BUA, 37. or.) eta *Ventachu* 1967ko azken Udal-erroldan. Auzotarren artean, *Bentátxu* moduan ezagutzen da Mallabia bidean kokatzen den Berrizko azken baserri hau.

Baserri-etxe soila da, XIX. mendean egindakoa. Bi isurkiko teilatuaren azpian fatxada sinpleko eraikina daukagu, bao gutxirekin an-

tolatua. Beranduago etxea handitu zuten, eta simetrikotasuna galdu zuen. Aitzitik, jatorrian sarrerako atea erdian zeukan, harlandu ederraz inguratutakoa. Etxeko kantalak eta leihoak material berarekin zabaldu zituzten: atearen bi alboetan dauzkanak zein horiekin lerrokatuta lehenengo pisuan daudenak, baita ganbarako bakarra ere. Hormak harlangaitzaz jaso zituzten.

toponimia

Izen gardena beste azalpenik behar ez duena. Aspaldian herri guztietan egoten ziren bentak eta berebiziko garrantzia zuten. Hasieran udalarenak ziren eta herriaren diru iturri bakarra ziren, alogeran zuenak udalari eman behar zion dirua dela eta. Bestetik bidaiarientzako gera-lekuak ziren, eta azkenik herrikoen, gizonetzkoen hobeki esan, taberna.



BUA / Mapa topografikoa, 1933